

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Ansa bigarrenaren bigarrena

Erremonteko Eusko Label banakako txapelketa irabazi du Imanol Ansa urnietarrak / 10-11

AIURRI

Xoxoka, asteburuan jaietan

Ostegunean hasi eta igandera bitarte jaietan murgilduko da Goiburu auzoa / 5

"Txalaparta" Kukai dantza taldearen ikuskizuna, ostiral honetan, Bastero Kulturgunean / 14

"Irri jaia" datorren urriaren 27an ospatuko da Bastero Kulturgunean eta Plaza Morean / 15


ERREMONTTE PARTIDAK
GALARRETA JAI ALAI HERNANI
URRIAK 11 OSTIRALA 17:00ETAN

1. PARTIDA (20 TANTORA) URRIZA · ZUBIRI vs SEGUROLA · JUANENEA	2. PARTIDA (20 TANTORA) JABALERA · BARRENETXEA IV vs ALDABE · AZPIROZ	FINALA (20 TANTORA) 1. PARTIDAREN IRABAZLEAK vs 2. PARTIDAREN IRABAZLEAK
----------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------

ORLA MEMO | ERREMONTTEA BIZIRIK | BAZTERO KULTURGUNA S.L. | Orona | ELISKADI | 65 SUKIA | berria | AIURRI

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



DEIALDIA

GERNIKA PALESTINA EUSKAL HERRIA

Genozidioa Stop. Alto El Fuego Ya. Bakea. Justizia. Itxaropena

Irudika al dezakegu lurrik gabeko herri bat, lurralderik gabeko nazio bat? Irudika al dezakegu 1948tik Israelek behartu duen exodo palestinarra? Irudika al dezakegu istant batez, zer den norberaren etxea, auzoa, olibondoak, itsasoa, abandonatzea? Irudika al dezakegu M. Darwish poeta handiak zioen bezala, ausentzia mapa bat?

Ezerk ez du inoren lurraldea okupatzea legitimatzen, ezta gerren ondorio krudelak ere, ez eta populazio oso bat suntsitzea, giltzapetzea, edota ukatzea ere. 2024. urte honetan, ordea, inoiz gertatu den genozidiorik krudelenetarikoa baten lekuko gara, eta halere, nazioarteko komunitateak ez du izugarrikeria honekin bukatzea lortu. Izugarrikeria diogu, bi daturen bidez soilik ikusaraz dezakegulako genozidio palestinarraren irismena: Israelgo armadak, Israelgo estatuak alegia, dagoeneko 41.000 palestinarrak erail ditu, eta Gazako kaleen eta azpiegituren %70 suntsitu ditu. Bi datu soilik, ondorio humano, sozial eta politikoa larriak dituen Nakbha baten aurrean gaudela baieztatzen. Israelek Libanori eraso eginda, milaka hildako eta suntsipen gehiago eragingo duen urratsa egin du. Non eta nola amaituko den ez dakigun espirala abiatu da.

Horrek guztiak nazioarteko ordenaren noraezaren zantzuak azaldu dizkigu. Gaur-gaurkoz, nazioarteko komunitatea ez delako gai izan, II. Mundu Gerraren ondoren eraikitako orube legalean oinarriturik, Israelen inpunitatearekin amaitzeko, eta Palestinaren biztanleagoari segurtasuna eta itxaropena bermatzeko.

Iazko urriaren 7tik, 12 hilabete beltz eta luze hauetan, munduko beste herri eta txoko askotan bezala, Euskal Herrian, Gernikako herrian, kale zein instituzioetan, bakea eta nazioarteko zuzenbidea erdigunean jarri nahi izan dugu, biak txanpon beraren bi aldeak baitira.

Iragan ekainean EBko hauteskundeen giroan, erakunde horri eta haren buruzagiei eskatu genien Israelgo politika genozida amaitzeko euren esku dauden

neurri ekonomiko eta komertzialak har zitzatela; eta, zehazki, EBri eskatzen genion Israelek duen merkataritza elkartearen eten zezala.

Gernika Palestina ekimena bultzatzen dugun eragile sozial, sindikal eta politikoa guztiok, elkartasunetik itxaropenerako leku bat dagoela oihukatzen dugu! Asko gara kaleetan aldarri egiten dugunak, "nahikoa da" oihukatzen dugunak! Bakea eta Justizia bilatuko duen ordena politikoa eskatzen dugunak! Eta ordena berri hori osatzen joateko, ez gara nekatuko honako aldarrikapen eta ideia hauek azpimarratzen eta exijitzen:

- Palestinarrek berehalako su-etena behar dute, armak isil daitezten, eta buka dadin Israelek egindako okupazio koloniala.
- Mendebaldeko estatuak gelditu egin behar dituzte

Israelgo Estatuari egindako arma eta baliabide militarren erosketa eta salmenta.

- Inongo estatu edota potentziaren ingerentziarik eza Palestinan, eta bere autodeterminazio-eskubidearen errespetua funtsezko abiapuntutzat jotzen ditugu. Palestinako biztanleek baliabide material eta politikoa behar dituzte beraien lurraldean gelditu eta duintasunez bizi ahal izateko.
- Bake justu, egonkor eta iraunkorra helburu, elkarrizketa eta negoziatzea dira egoera krudel honi irtenbidea emateko elementu nagusiak. Nazioarteko komunitatearen parte-hartze aktiboa funtsezko gakoa da. Horren bidez, aldeak negoziatzera bultzatu, eta Nazioarteko Zuzenbidean eta NBEren ebazpenak zorrotz betetzeko modu bakarra da.

Deialdia:

Bidegurutze historiko batean gaude! Humanitateak une erabakigarria bizi du! Eta guk etorkizuna eta itxaropena eraikitzearen aldeko hautua egin dugu. Ezin gara isilik geratu. Genozidioa STOP! Gerrarik EZ! Euskal jendartea historiaren alde onean dagoela ziurtatu nahi dugu. Bakearen, justiziaren eta gizatasunaren aldean.

Ezinbestekoa dugu munduan eta baita Euskal Herrian ere, indarrak batzeko modu masiboan mobilizatzea. Genozidioa geldiarazteko eta konponbidea aldarrikatzeko jendarte zibilak duen aukera eta itxaropenerako leihoa hauxe baita: aktibazioa. Dei egiten diogu euskal jendarteari, urriaren 21ean, herri guztietako udaletxeen aurrean 19:00tan izango diren kontzentrazioetan parte hartzea.



Aparteko elizkizuna, San Martin parrokian

Donostiako Gotzaindegiko bikario Mikel Iburgurenek lagunduta, Iñaki Zabaleta eta Manuel Oiartzabal apaizak agurtzeko aukera baliatu zuten joan zen igandeko mezan. Ez ziren eguneko protagonista bakarrak izan, ekitaldi berean izan baitziren La Salle Berrozpen erretiroa hartu duten Rikardo Fuster, Manuel Udabe, Joxe Mari Mujika eta Nazario Maiz salestarrak. Azken mezaren adierazpenak eta bideoak Aiurri.eus webgunean ikusgai daude. Elizkizuna eta gero, bazkaria egin zuten ehun lagunek Leizaran jatetxean.



AIURRI

Euskalduna eta Hurria-Sahara, elkar hartuta

Irailean, Larramendi Torneoa eta Gurrutxeta Memoriala antolatu ziren Ubitarten, eta bietan ekimen diru-bilketa solidarioa egin zen. Bildutakoa zertara bideratuko duen aditzera eman du Hurria-Sahara elkarteak: "Argi genuen Saharako Gobernuaren euskal ordezkariarekin adostu behar zela eta hori guztia esan eta gero Saharan martxan dagoen 'Familia baratzak' egitasmora bideratuko da dirua. Eskertzekoa da Euskaldunaren ekimena, are gehiago kontuan izanda ez dela saharar herriarekiko elkartasun ekimen batean inplikatzeko den lehen aldia".



EUSKALDUNA



AIURRI

Luizia, Leizaran kaleko horman

Luizia gertatu zen Leizaran ibaiaren arroan, aurreko astean. Horren ondorioz, segurtasuna bermatu asmoz, oinezkoen bidea eta zenbait aparkaleku itxi egin zituzten. Udalak aditzera eman duenez, neurketa topografikoak egingo dira luizia gertatu den eremuan luraren mugimendua zenbatekoa izan den neurtzeko.

Sorabillan, trabatuta

Asteburuko irudietakoa izan da, ostegunetik larunbatera Sorabillako Itasa enpresara hurbildutako kamioi batek okerreko bidea hartu eta bazterra jo zuelako. Ez atzera, ez aurrera, bi egunez bertan izan zen geldirik. Azkenean, garabiaz gain, baserritarren eta udal zerbitzuen lankidetzarekin traban zegoen kamioia baserri bidetik kendu zuten.



AIURRI



AIURRI

Miranda pasealekuaren etorkizuna, hizpide

Andoaingo Udalak pasealekuaren erabileraren gaineko hausnarketa-prozesuari ekin zion joan den maiatzean, eta asteartean emaitzak aurkeztu zituzten. Bertan Miranda pasealekuaren gaineko proposamen-sorta aurkeztu zuten

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udalak Miranda Pasealekuko erabiltzaile potentzialekin (adin handieneko bizilagunak, haurrak, nerabeak, gazteak, etxeberrrietako bizilagunak, zakurren jabeak, 45 urtetik beherako gurasoak dituzten familiak...) hainbat bilera egin ditu azken hilabeteetan. Asteartean, berriz, prozesu horren emaitzak aurkeztu zituen Basteron. Horretarako, dignostikoa egiteko ardura hartu duen Projekta Urbes enpresako Miren Vives teknikariak hartu zuen hitza.

Hainbat irizpide lehenetsi zituztela azpimarratu zuen Vivesek; hala nola, irisgarritasuna, segurtasuna, erosotasuna, erakar-garritasuna, naturarekin konekzioa... Proposamen zehatzen inguruan Zumea plazatik, Aze-laingo zubitik eta Allurralde kiroldegitik sarbideak erraztea, edota pasealekuko zenbait gune-tan elementuak (arrapala, eskailerak, harmailak, platafor-



Ixiar Olano udal teknikaria, Andoni Alvarez alkatea eta ikerketa aurkeztu zuen Miren Vives, Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan. **AIURRI**

mak, kirol-kantxak, jolasgune anturala, piknik-gunea, kioskoa, txakur-gunea, egonlekua...) ipintzea izan litezke aukerak.

Fasez fase ekin beharrekoak

Andoni Alvarez alkateak Basteroko aurkezpenean azpimarratu zuenez, "txostenak proposamen-

sorta egiten du, eta hori abiapuntu izanda, etorkizunean ildo nagusiak markatu beharko dira. Era horretan, interbentzioak faseka burutu beharko dira". Basterora hurbildutako herritar-rrak aipatu zuen lehentasunezko jarduna izan litekeela zakurren-tzat eremua edo hesia markatzea.



IN MEMORIAM

IRUNBERRI ELKARTEA ANDOAIN

Nortasun irekiko herrikidea

Joxe Ramon Gorostegi Auzmendi irailaren 15ean hil zen, 69 urte zituela. Ezeren aurretik, doakie doluminik sentikorrenak bere emazte Tereri, bere bi seme-alaba Egoitz eta Itziarri eta gainerako senideei.

Sentimendu abertzale sakoneko pertsona izan zen Joxe Ramon, eta argi zeukan antzera pentsatzen zuten andoaindarrek beharrezkoa zutela topaleku atsegina, aisialdiaz elkarrekin gozatzeko ez ezik, baita ere euskal kultura zabaltzeko. Horrexegatik izan zen Irunberri elkartearen egitasmoa hasiera-hasieratik bultzatu zuena, 1998an.

Nortasun irekiko herrikidea genuen Joxe Ramon, jendartekoa, txantxa zalea... Harekin erraz lor zitekeen konfiantza, eta hizketan atseginean jardun, behin lehenbiziko diosala egin eta gero.

Egia esanda, osasunak ez zion askorik lagundu azken urtetan, batik bat berak hainbeste maite zituen pertsonen arteko solasaldiak, ziri sartzeak... normaltasunez eraman ahal izateko.



Nolanahi ere, ezintasun hori gainditu, eta ederki asko eutsi zion bere umoreari, graziari eta sinpatuari. Edonorekin, edonon.

Kalean edo edozein lekutan, txatarraz zamatutako kamioian edo autoan urrun egon arren, Joxe Ramonek ezagunei eta adiskideei ahots goran luzatzen zieten, zigun, diosala, eta nahitaez eragiten zigun ezpainetan irribarrea. Faltan botako dugu bere ahotsa honetaz aurrera. Ari gara faltan botatzen dagoeneko.

1977an Andoainen erail zuten taxista gogoan hartu zuten

David Salvador Bernardo Hernaniko taxi-gidaria zen. Bilbon jaioa, haren omenezko plaka ipini dute sorterrian

Erredakzioa ANDOAIN

1970 eta 1980ko hamarkadatan Beterrri-Buruntzan aritu zen talde eskuindar armatua. Izen ezberdinak erabili zituzten, hala nola Triple A eta Batallon Vasco Español. Gertaera latz haietako lehen biktima izan zen David Salvador Bernardo taxigidaria. Bilbotarra zen jaiotzez, eta aste honetan Bilboko Udalak haren omenezko plaka jarri du. Ekitaldian izan ziren Juan Mari Aburto Bilboko alkatea, Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Bilboko Topagunearen hainbat

ordezkari eta David Salbadoren senitartekoak.

Frankismoaren aurkako kereilan jasota dago gertaera

2019eko ekainean, orduan alkatte zen Ana Carrerek frankismoaren krimenen aurkako kereila aurkeztu zuen Andoaingo Udalaren izenean. Oroimen historikoaren aldeko "Oroituz, Andoainen" elkarteak atondu zuen txostena izan zuen oinarri kereilak. Txosten horrek frankismoak Andoainen 1936-1980 epean eragin zituen giza esku-



Salvador Sarasola familia, Bilboko ekitaldian. **BILBOKO UDALA**

bideen makina bat urraketa jaso zituen; besteak beste, Beterrri-Buruntzaldean Estatu

aparatuekin harremana zuten ultraeskuindarren biktimen kasuak, Salvador bera tarteko.

Auzitegi Konstituzionalak eman-gu duen azken erabakiaren zain daude.



Astelehen eguerdian abiatu ziren jaiak Xoxokan. AIURRI

Xoxoka jaietan murgildu da

Bertsoak, herri-kirolak eta bazkaria; osagai horiekin abiatu ohi dira Xoxokako jaiak. Astelehenean egin zuten lehen ospakizuna, eta, ostegunean hasi eta igandera bitarte, hamaika hitzordu gehiago izango da

Erredakzioa URNIETA

Herriguneko jaiekin nahikoa ez eta hasi dira Xoxokako festak, 13ra bitarte. Astelehenean eman zioten hasiera ospakizunari, suziriak zerura botata. Herri-kirolen erakustaldiak ireki zuen jaien egitaraua: Beñat Telleria, Julen Gabirondo, Xabat Olaizola eta Andoni Mugerza izan ziren protagonistak. Harri-jasotzea, trontza, aizkora eta korrika saioa egin zituzten, librea, zein binaka, lehian. Euritsu hasi zen astea Xoxokan, baina horrek ez zuen zaleen etorrera galarazi eta plaza jendez beteta ekin zioten xoxokarrek auzoko ospakizun-sortari. Herri-kirolak amaitu bezain pronto iritsi zen bertsoen txanda. Urteak daramatzate Egañak eta Arzallusek Xoxokan saioa egiten, eta aski ezagunak dira beren doinuak eta errimak auzoan.



Trafikoa eta autoritatea, iazko Gau Sorpresa. AIURRI

Gau sorpresa, ostegun honetan

Urte luzez astearte gauean egiten zen gaur sorpresa, eta, iaz hasita, ostegunean izaten da. Afalostean, auzotarren arteko antzezpena ikusteko aukera paregabea da.



Xabat Olaizola, Beñat Telleria, Julen Gabirondo eta Ugaitz Mugerza. AIURRI



Julen Gabirondo aizkoarekin, egur betean. AIURRI



Beñat Telleria eta Xabat Olaizola, harri banarekin. AIURRI



Andoni Egaña eta Amets Arzallus kantari aritu ziren plazan eta bazkarian. AIURRI



Egape dantza taldeko kideek erakustaldi berria eskaini zuten plazan, herrikideen aurrean. AIURRI

Erakustaldi bikoitza, plazan

Gelidako (Herrialde Katalanak) Esbart Rocasagna dantza-taldearen bisita jaso dute Urnietan, joan den asteburuan, Egape Dantza Taldeak antolatuta. Birritan irten ziren plazara, dantzan, larunbatean zein igandean



Kataluniako Gelida udalerriko Esbart Rocasagna aritu zen Urnietan, larunbatean eta igandean emanaldi bana eskainiz. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Asteburuko gonbidatu berezia izan da Esbart Rocasagna. Gelidatik (Herrialde Katalanak) etorrita, ikuskizun bikoitza egin dute Urnietan, Egape Dantza Taldearen gonbidapenez: larunbatean, "ERA" taularatu zuten, kutsu garaikideetan oinarritutako emanaldia. Era berean, festetako ohiko erakustaldia egin zuen herriko taldeak. Hala, makina bat zale gerturatu zen San Juan plazara, arratsaldean, Euskal Herriko zein Herrialde Katalanetako folkloreak goza-

tzeko prest. Igandean, berriz, mugimendu tradizionalen txanda izan zen. Pieza bakoitza, banan-banan azalduta, hamarna dantzaren erakustaldia egin zuen talde katalanak.

Senidetzeak, dantzaren bidez

Egape Dantza Taldeak urteak daramatza bere sorreratik beste txokoetako kultur eragileekin senidetze-harremanak estutzen. Hala, Euskal Herri kanpoko hainbat plaza ezagutzeaz gainera, dantza eta melodia berriak gerturatu izan ditu elkarteak San Juan plazara. Esate baterako, Galizan izan zen Urnietako taldea, 2013an, Grupo Chorima de Rois taldeari esker. Era berean, 2015ean nahiz 2017an, Vilafranca del Penedesen izan ziren urnietarrak, bertako Falcons taldearen gonbidapenez. Bada, orain, Gelidara joateko txanda iritsi zaie; irrikaz daude dantzariak, 2025eko ekaina iristeko.

EGAPEK URTEAK DARAMATZA SENIDETZE-HARREMANAK ESTUTZEN



“Harrera beroa jaso dute gure dantzariak”

JORDI ROSELL CUSÓ ESBART ROCASAGNAKO PRESIDENTEA

Mende erdi pasatxoko ibilbidea du Gelidako Esbart Rocasagnak oholtza gainean. Bertako presidentearekin hitzartu zen Aiurri igande goizean, bigarren emanaldia baino lehen

Erredakzioa URNIETA

Zer moduz doa asteburua?

Sentsazio politikak bildu genituen lehen emanaldian, oso eroso egon baikinene ikuskizunean. Harrera beroa jaso dute gure dantzariak, ikus-entzuleen partetik, txalozaparradak entzun baitziren emanaldiaren erdian. Oso ondo joan zen ikuskizuna, eta baita ondorengo ospakizuna ere. Egin ohi dugunetik aski urruntzen den pieza da, eta, askotan, errespetua ematen digu, baina publikoak oso ondo konektatu zuen. Gaur goizekoan, ostera, tradizioari eutsiko diogu.

Kutsu garaikideko mugimenduak txertatzen dizkiozue oinarri tradizionalari. Oreak bilatu al duzue dantzatzeko bi moduen artean?

Betidanik egin izan dugu dantza tradizionala. Baina, orain pare bat urte, proiektu berri bati ekin genion. Jauzi handia eman genuen, orduantxe: dantza garaikideko eta urbanoko koreografo batekin ipini ginen harremanetan, ikuskizun berri bat ontzeko. Mugimendu tradizionalen nahiz garaikideen erdibidean zen ko-



Jordi Rosell, oroigarria eskuan. AIURRI

katzekoa, hasiera batean, proiektua, nahiz eta azken emaitzak mugimendu modernoagoetara jo. Elkarren arteko konexioa landu zuten sakonki, baita gorputz jarreraren gainean hausnartu ere. Gogorra bezain interesgarria izan zen ariketa.

Zenbat dantzari osatzen duzue Esbart Rocasagna?

Talde handiarekin etorri gara Urnietara: guztira, 30 dantzari dira, nahiz eta hona, soilik, 23

etorri. Gaur egun, oso talde gaztea da, aurten 14 gazte igo direlako taldera dantza-eskolatik. 17 eta 27 urte bitarte dituzte taldekideek. Gelidako gazteak dira gehienbat, taldean, nahiz eta, oso tarteka, inguruko baten bat ere etorri.

Harrobi sendoa duzue, hortaz.

Bai, bai, jakina! Harribitxia dugu. 90 kide ditugu, oraintxe bertan, 4 eta 17 urte bitartekoak eta, beteranoen taldean, 30 kide. Helduen taldea ere badugu, baina maiztasun txikiagoarekin biltzen dira, dantza egin bitartean, ondo pasatzeko, batik bat.

Kasualitate ederra, hortaz, zuen antzeko filosofia duen Egape Dantza Taldearekin topo egin izana.

Bat-bateko maitemina izan genuen Aukeran Dantza Konpainiarekin Manresan, egia esan. Eta horrela gertatu zitzaigun atzo ere, Egapeko dantzarien ikuskizunarekin. Are gehiago, 2025eko ekainean datozenean, zenbait tailer egitea bururatu zaigu, gure arteko elkartrukea sustatze aldera. Oso gustura sentitu gara eta oso goian jarri digute langa!



Ohikoan dastatzen ez den ardoa probatzeko aukera izan zen Urnietan. AIURRI

Mundu zabalean ekoizten den ardoa dastatzeko aukera

Batzokiak munduko ardoak dastatzeko aukera eman zuten kontzejupean, beste urte batez

Erredakzioa URNIETA

Gastronomiak leku berezia hartu ohi du festetan. Janak eta edanak ez dute hutsik egiten herrian irailaren amaieraren buel-tako asteburuetan. Hori horrela, ardoa dastatzeko geldialdi berezia izan zen kontzejupea, igande goizean, Batzokiaren

eskutik. Egurdiko 12:00etan egin zuten hitzordua eta, pintxo batez lagunduta, orotara, zortzi jatorri desberdinetatik ekarritako ardoak dastatzeko aukera izan zen: Txile, Argentina, Australia, Alemania, Frantzia, Zelandia Berria, Portugal eta Italia. Eguraldia lagun, dozenaka lagun bildu zen igandean.



Txile, Portugal, Argentina... Aukera zabala zen. AIURRI

Mediterraniar eta kantauriar konexioa, Urnietan



Saioa amaituta, Gelidako eta Urnietako dantzariak taldeko argazkia atera zuten. AIURRI



Ardo-dastaketan lanean aritu ziren Batzokiko kideak. AIURRI



Hainbat kulturen bilgune izan zen Bagara elkartearen kalejira. Amaieran irrintzika aritu ziren San Juan plazako oholza gainean. AIURRI

Kalez kale, irrintzika

Bertso-kalejira izan zen, larunbat goizean, herrigunean, Bagara talde feministaren eskutik. Eguraldia lagun, herriari bira eman zioten, zapi morea soinean, kalez kale, irrintzika

Erredakzioa URNIETA

Irrintziek hartu zuten herria, larunbat goizean, Bagara talde feministaren deialdiarekin bat eginda: bertso-kalejira egin zuten Urnietan barrena, Zubitxo plazatik hasita, San Juan plazaraino. Urnietako Naroa Agirrek nahiz Irati Zinkunegik girotu zuten, bertso-kantuan, hitzordua, Enara Donaveraren zein Jone Izagirreraren doinuen laguntzaz. Era berean, Bendir hotsa entzun zen kalejiran, Afrika iparraldeko herrialdeetan oso ezaguna den danbor tradizionala.


Guztira, lau geldialdi egin zituzten: hasteko, Zaldundegi jattetxearen alboko plazan egin zuten lehen atsedena, "Zaintza" eskulturaren alboan. Jarraian, Teresa Amuategi parkera jo zuten, Urnietan aski ezaguna den emagina eta idazlea gogoan hartzeko. Kalejiran, Etxeberri plazara iritsi ziren, gero; bertan, plaza-dantzan aritu ondoren, Lourdes Iriondo parkera joan ziren, abeslari ezaguna omentzeko, "Ez gaude conforme" edo "Errota zaharra" bezalako kantua abestuz.



Kalejiran parte hartu zuten herrikideak. AIURRI

Amaitzeko, irrintziak

Hitzordua biribiltzeko, San Juan plazako oholza hartu eta, bertan, irrintzika aritu ziren bederatzi parte-hartzaile: Elurtxo Etxeberria, Mirentxu Egizabal, Dultze Fernandes, Natalia Rodriguez, Ana Gabirondo, Maxus Etxeberria, Karima Ramdane badda, Bouchra Ramdane eta Salma Qabbs. Aipatutako azken hiru lagunek marokoar jatorriko "la zarerita" oihua erakustaldia egin zuten. Behin eztarriak lehortuta, hamaiketako goxoaz gozatu zuten.



Lourdes Iriondo parkean, Bagarak zapia jarri zuen eskulturaren. AIURRI



Aspaldiko ibilgailuak gertutik ikusteko aukera izan zen Idiazabal kalean. AIURRI

Garai bateko autoak, Urnietako kaleetan

Gipuzkoan barrena ibili ostean, gidariak eta antolatzaileak Oianumen egin zuten bazkaria

Eneko Bustillo Gonzalez URNIETA

Garai ezberdinetako kotxe klasiko ugari ikusteko aukera izan zen Urnietako Idiazabal kalean, aurreko larunbat goizean. Ondoren, hainbat kilometroko ibilaldiari ekin zioten. Parte-hartzaileak Bidania, Errezil, Aizarra, Meaga, Andatza eta Xoxoka zeharkatu zituzten, besteak beste.

Urnietako VI. Ibilaldia aparteko ezustekorik gabe amaitu zen: soilik kotxe batek utzi behar izan zuen ibilaldia, 1989ko VW Golf bat autoa, Urnietakoa hain juxtu, hozteko sisteman izandako ihesa bat dela eta.

Rallye-a amaitzean, Oianumen bazkaldu zuten parte-hartzaileek eta antolatzaileek, eta, ondoren,

sari-banaketa ekitaldiari ekin zioten:

- G kategorian (1970-1979 urteko autoak) Alex Godoy eta Ruben Felipe nagusitu ziren, Seat 600 autoa gidatzen.
- H kategorian (1980-1994 urte arteko autoak), Iker Arrate eta Berdaitz Larrartek irabazi zuten, Citroën ZX 16v autoarekin.
- Emakumezko gidari onena Cristina Gonzalez izan zen, eta emakumezko gidari-laguntzaile onena, berriz, Leire Sanchez.

Aipatzeko ibilaldiko autorik zaharrena edo "beteranoena" 1952ko Mercedes-Benz 220 bat izan dela.



Ibilgailu klasikoaren osagaiek zeresana ematen dute. AIURRI



Euriak agerpena egin zuen igande arratsaldean. AIURRI

Txekor-jate solidarioa

Sanmielak amaitu eta hurrengo asteburuan ekitaldi gehiago antolatu ohi ditu Urnietako Udalak. Txekor-jate solidarioa tradizio handikoa bilakatu da eta bertara dozenaka herrikide hurbildu zen

Erredakzioa URNIETA

Tradizioz beteriko ospakizunak kateatzen dira Urnietan, urteko sasoi honetan. Sanmielak igarota, jaien jarraipenaren kutsuko asteburua izan zen aurrekoa. Eta, atsedenek hartzeko tarterik gabe ia, Goiburu aldeko Xoxoka auzoa jaietan murgildu da.

Igande arratsaldea, Urnietako plazan

Ekitaldirik ez zen falta izan San Juan plazan, eta inguruetan. Izan ere, Udal pilotalekuan Maiz eta Etxeberria memorialak jokatu ziren. Plazan, aldiz, plazadantzez goza zitekeen. Eta, kontzejupean eta inguruetan, haragi eta sagardo usaina. Janaren eta edanaren bueltan dozenaka herrikide elkartu ziren, herri-guneko jaiei amaiera emanaz. Euriak agerpena egin bazuen ere, txekorraren pintxo ugari banatu zituzten. Aterkia eskuan, parrillan egindakoaz gozatzera hurbildu ziren hainbat lagun. Aurten, jakina denez, salmentaren ondorioz ateratako dirua Katuamets herriko elkartearen zat izan da.



Altuna sagardotegiko kideak, igande arratsaldeko sagardo-dastaketan. AIURRI



Urnietako mintzalagunak. AEK

AEK euskaltegiaren erronka, plazara hurbildu zirenei

Sagarrez beteriko zakuaren pisua asmatu beharra zegoen eta irabazlea Maxus Etxeberria izan zen

Erredakzioa URNIETA

AEK euskaltegiak erronka dibertigarria antolatu zuen igandean: sagarrez beteriko zakuaren pisua asmatzea. Ausartu ziren guztien artean irabazlea Maxus Etxeberria Santa Cruz herrikidea izan zen. Hark eraman zituen etxera gazta eta bi sagardo-botilak.

Mintzalagunak, martxan

Mintzalagun egitasmoan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago Urnietako AEK euskaltegian. Euskaraz gero eta erosoago aritu nahi dutenek talde txikitik praktikatzeko aukera izango dute, astean behin elkartuta. Beheko argazkian Urnietako hainbat mintzalagun ageri dira.



Maxus Etxeberria Santa Cruz. AIURRI

Sanmielak 2024 | Urnietako Udalaren balorazioa

"Aurtengo Sanmiel jaiak eta Arrosarioko Ama Birjinaren jaiak giro ederrean eta herritarren parte-hartze onarekin ospatu dira. Festetako ostiral arratsaldean eta larunbat goizean euriak ez zuen gehiegi lagundu, baina hala ere, jendearen gogoia lagun jai giroa nagusitu zen erraldoi eta buruhandiekin, elektrotzarangaren erritmoarekin

eta gaueko kontzertuetako doinuekin. Gainerako egun eta momentuetan eguraldi ona izan zen eta prestaturiko ekintzak normaltasunez aurrera eraman ahal izan ziren.

Aipamen berezia merezi dute asteburuan egin ziren bazkari herrikoiek, elkarte antolatzaileek egindako lan bikainari esker.

Nabarmentzekoa da, halaber, San Joan plazan eta txosna-

gunean eskaini ziren mota guztietako kontzertuetan izan zen giro ona.

Urriko lehen asteburuan ospakizunek jarraipena izan dute Arrosarioko Ama Birjinaren ohorezko jaiekin eta Baserritarren egunarekin. Bi egun hauetan herritarrek jarduera ugari gozatzeko aukera izan dute.

Bestalde, aipatu behar da jaiak errespetuzko giroan garatu direla,

eta zorionez, ez dela gorabehera larrik erregistratu.

Jarduera horiek guztiak prestatu eta burutzeko ezinbestekoa izan da Jai Batzordeak eta herriko elkarteek egindako lana. Udalak zorian eman nahi dizkie egindako lan bikainagatik, eta elkarlanean jarraitzeko gonbita egin nahi die, guztion artean ahalik eta jai anitzenak, inklusiboena eta aberatsenak antolatzen jarraitzeko".

Ansa II, aurtengo finalean. **ORIAMENDI**

“Garaipenek erakutsi naute porrotak erlatibizatzen”

IMANOL ANSA ERREMONTISTA

Urnietarrak bere hausnarketak plazaratu dizkigu erremonteko buruz burukoan bigarren txapela jantzi eta egun batzuk pasa ondoren

Andoni Urbistondo URNIETA

Asko balio omen du bigarrenak, txapel bakarraren zori osagaia uxatzeko, eta iazkoa baino zailagoa izan delako. 28 urteko mutil jantzia da Imanol Ansa, Ansa II. erremontista. Buruz buruko bigarren txapela irabazi izanak ez dio bere egunerokoa aldatu. Pasara latza hartuta afaldu zuen Samiel eguneko bezperan Oianumen, eta zezenen pare hartu zuten ia txosnetara

iritsi zenean. Igandean, baina, biharamun latza pasa zuen, eta astelehenean lanera zintzo, Asteasura, erremontek ez baitu beste kirol batzuetako sos zakurik ematen. Azken egunetan Europa erdialdean barrena dabil koadrilarekin, opor egun batzuk pasatzen. Aurrez erantzun zituen Aiurri-ren galderak; psikologiak, buruko indarrak pisu handia duten erantzunak, asko.

Bigarren txapela ere ondo geratzen al zaizu?

Ezberdinak dira. Lehena ziklo baten bukaera izan zen, amets bat betetzea 10 urte erremontista jardunean borrokatzen aritu ondoren. Bigarrenaren berezitasuna nire buruari eta jendeari bigarren txapela irabazteko gai izan naizela erakutsi izana da. Bereziagoa izan zen lehena, aurtengoa halako superazio sari bat bezalakoa izan da.

Kanpotik ikusita, zailxeagoa izan ote den...

Beno, arazotxo fisiko batzuk izan ditut: hiru kolpe jaso ditut pilotekin, zuntz haustura txiki bat eta 10 bat egun geldirik, hasiera kaskarra Urrizaren aurka 30-9 galduta, Juanenearen aurka ere larri 17-12 galtzen... Frontoitik kanpo ere bizitza bat dugu denok, baina buelta eman nion, eta bi txapel, dagoeneko.

A zer nolako hasiera, Urrizaren aurka: txapela defendatu eta muturreko latza.

Ba konfiantzarekin iritsi nintzen, entrenamendu on bat eginda Azpirozekin, baina sekulako muturrekoa hartu nuen, bai, 9an geratuta. Zerbait aldatu beharra ikusi nuen orduan: zesto berri bat, gero horrekin ere ondo ez, zahar bat hartu eta saketik abiadura gehiago eman pilotari... Jarduneko txapelduna ez nintzela pentsatuz ekin nion, ez nuela ezer defendatzen, denak pare abiatzen ginela baizik. Niretzat erremontistaren izenak edo titulu kopuruek baino balio handiagoa dute unean uneko joko puntuak.

Juanenearen aurka ere 17-12, eta dena bukatzetik gertu.

Bai, minus batekin nintzen Urrizaren aurka 9an geratu ondoren. Tentsio handiko unea izan zen, eta tantoz tanto jarraitu nuen, partida berdindu eta Aritz nekatur. Garaipena lortu nuen azkenerako, eta Aritzek 24 tanto egin gabe, punturik lor ez zezan.

Azken lau buruz burukoak irabazi dituzu errenkadan.

Duela bi urte master-a irabazi nuen, eta hor buruak klik egin zidan, Barrenetxea bitan menderatu nuelako. Ezinezkoa zirudien horrek, ez aspaldi. Garaipenek konfiantza ematen dute, fedea, eta geroztik, buruz buru jokatu ditudan banakako guztiak irabazi ditut. Sinetsi egiten dut. Banintzen lehiakor lehenagotik, baina konfiantza horri garaipenak gehitu zitzaizkion.

Bigarrenak indar berezia ematen duela esango nuke. Zenbatetan entzun ote duzun: bueno, lehena, Juanenearen aurka...

"TANTOZ TANTO JOKATZEN DUT AZKEN ALDIAN, MARKAGAILUARI BEGIRATU GABE"

Eta aurtenean ere bere aurka mugamugan. Juanenearen aurka galdu izan banu, askok hala pentsatuko lukete. Kanpotik egiten den irakurketa da, dena den. Nik, Juanenearen aurka galdu izan banu ere, bestelako ondorioa aterako nuke. Galdu egin dut, bai, baina ja konfiantzarekin zaude. Askotan antzeko lana eginda galdu edo irabazi egin dezakezu. Detaileak oso garrantzitsuak dira. Kanpotik dena da erradikalagoa. Edo onena zara, edo txarra. Nik, aldiz, nahiago dut neurrian baloratzea garaipenak eta porrotak. Ez zara hain ona irabazten duzunean, ezta hain txarra galtzen duzunean ere.

Hitz egin dezagun finalaz.

Oso lehia gogorra espero nuen. Endikak botere handia dauka, eta egun ona badu sakearekin eta bigarren pilotakadarekin zaila da hari aurre egitea. Tentsioa, urduritasuna eragiten dio zain dagoenari. Ez zen ondo hasi, ni 8-3 aurretik. Ondoren pilota aldatu nuen, ez nintzelako sakean asmatzen ari, eta akatsa egin nuen. Lau tantoz aurreratu zen, gero hamaseina berdindu genuen, eta ondoren ba ia-ia finala hautsi zuen, 23-16 aurreratu. Sakea, dominatu eta takada ona egin zuen Endikak.

Hor dena galduta zenuen, ia-ia.

Etxetik prest joan nintzen halakorik geratzen bazen partidak ez joateko.

Nola, baina?

Tantoz tanto jokutzen dut azken aldian, markagailuari begiratu gabe eta pilotakada bakoitza, edo akats bakoitza aztertu gabe, horrek ezkortasunean murgiltzen baitu burua. Tanto bat egin eta beste baten bila abiatzen naiz. Tanto bat bukatu da, hurrengoaren bila. Zure esku dagoena egiteko kontzentrazio maila altua lortzea da gakoa. 23-16koarekin oso sake ona eraman nuen, eta ondoren bere pilota bizienezakoa atera, etsi antzean, arriskatzeko. Bistakoa da, asmatu egin nuela. Berdindu, aurrea hartu eta hazi egin nintzen, eta Endikak, aldiz, behera egin bere errendimenduan.

Kanpotik egiten den, dudan analisi. Finalerdian Urriza, eta finalean Barrenetxea menderatu izanak balio gehiago eman dio txapelari?

Niretzat ez. Berritot, izenek baino joko puntuak balio du. Iaz ere ni neu eta Juanenea joko puntu hobean geunden eta fina-



Europar barrena dabil, egunotan, lagunekin batera. ANSA

la jokatu genuen. Eta Urrizak eta Barrenetxeak parte hartu zuten. Horrek ez du esan nahi izazko txapela irabaztea errazagoa izan zenik, Juaneneak Barrenetxeak baino izen gutxiago daukalako. Jendeak lorpenei, txapel kopuruari erreparatzen dio beste ezeri baino gehiagori.

Urrizaren aurkako finalerdia, ligatxoan 30-9 galdu ondoren, ez zen erraza izango, ezta?

Urriza da txapelen erregea, eta bere aurkako finalerdia jokatu aurreko astea ez zen ona izan niretzat. Ligatxoko azken partida jota bukatu nuen fisikoki, eta astelehen eta asteartean motel ikusten nuen nire burua, ezkor. Gainera Urriza zakur zaharra dela badakit, berea emango duela ziur. Urrizaren buruan jarri nintzen, ordea, eta pentsatu, Urrizak ere izango zuela buruko minik, Ansa menderatu behar zuelako.

Ez zara laineztu, puztu, bi txapel irabazi izanagatik.

Txapelak sufrimendu askoren ondorio dira. Asko borrokatu behar izan dut, eta oparirik batera ez. 20 urte izan banitu, bi txapelekin, ba puztuko nintzateke, baina 28rekin ez. Nire egunerokoa ez da aldatu bigarren txapela lortu dudalako. Ez naiz Eurokopian gol bat lortu duen futbolaria, bizitza aldatuko diena. Ametsa bete nuen lehen

"FINALEKO ASTEAN IKARAGARRI GOZATU NUEN. IRITSI NINTZELAKO, ETA EZ ZELAKO ERRAZA IZAN"

txapela lortuta, baina barruko poza izan zen; kanpora begira ez naiz aldatu. Akaso erremon-teko koadroan errespetu gehixeago irabazi dut, baina kirol diziplina horren mundua, testuingurua oso txikia da. Garai-penek lagundu naute porrotak erlatibizatzen. Galdu izan ditut final batzuk tanto bat, bi tantogatik, eta momentu hartan asko sufritzen da. Gero, txapela buruan duzunean jabetzen zara garai-penaren eta porrotaren garrantzi-az. Ez naiz ondokoa baino gehiago 14 koadroko frontoi batean pilota bati zesto batekin hobeto emateagatik. Asteasun egiten dut lan, eta bertako taberna bateko zerbitzariekin, Begoña eta Izaskunekin izan nuen solasaldi polita. Nork du meritu gehiago? Zahar bat zaintzen duen pertsona edo nik, txapela irabazi dudalako? Niretzat zaharra zaintzen duen pertsonak, dudarik gabe.

Agerikoa da buruko kementa, psikologia landu duzula, halako mezu potenteak botatzeko.

Esan ditudan arazo fiskoengatik ernegatu samar ibili naiz, baina Loitegi botileroak esaten zidan: 'hi, motel, lasai egon hadi, ez zaik erremon-tean jokatzeko ahaztuko-eta'. Ilia Topuria borrokariaren pelikula ikusi nuen, hilabete batzuk atzera, eta hark esaten du bisualizatu, ikusi behar duzula garaipena. Iaz pentsamendu hori eduki nuen Juane-nearen aurkako finalean. Lan-keta bat egin behar da, prest zaudela sinesteko. Iaz sentitu egin nuen txapela, ikusi. Bakarren batek pentsatuko du: 'hau duk hau, harroputza!'. Ez. Sen!

Gustura, Eugenio osabaren ondoan bizitzen

Bi urte atzera egin zuen martxa etxeko epeletik Imanolek. Setien sagardotegi ondoko etxebizitza berri du, eta han bizi da, Eugenio Urruzola osabarengandik gertu. Galarretan ehunka aldiz izango zen Eugenio, eta ilobak bi txapel irabazita, kontent da noski. Halakorik lortuko zuenik pentsatzen ez bazuen ere: "Erotuta ere ez". Imanol pilotari nola lotu zen azaltzen du: "Aita zenak eraman zuen herriko pilotalekura, Agustinek. Bera eta Xabi anaia. Eskuz aritzen ziren. Txikiak ziren bi anaiak, pilotak gainetik pasatzen zitzaizkien", gogoratzen du. Hainbestera Xabier anaia zaharra marruz hasi zela egunen batean, ezinean. Hor etsi zuten, eta erremon-tean hasi". Agustín aita ere ibilia omen zen erremon-tean, baina profesionaletan debutatu gabe.

Imanolek 12 urte atzera galdu zuen aita, eta epe horretan Eugenio bera izan du alboan Imanolek. Aita lanak egiten? "Aita bakarria izaten da. Nik laguntza eta babesa eman izan diet, bi ilobei, baina aita bakarria izaten da. Lurdes ama izan da eurentzat ardatza, familiako zutabe nagusia denontzat". Imanol nahiko ondo ezagutzen duela dio Eugeniok: "Erremon-tista bezala pertsonalitate handikoa da, ez du inoiz etsi. 60 kiloko mutila ikusten zenuen 20 urterekin eta pentsatu: pilotak airean eramango dik hau".

Bigarren txapelak erakusten omen du edozeini irabazteko gai dela: "ez du tenplea galtzen markagailua oso kontrari edukita ere, eta hori oso garrantzitsua da. Eskarmentua irabazi du, atsedean hartzen ikasi. Bigarren txapela Urriza eta Barrenetxe-ari irabazita jantzi du, eta hori lorpen

tsazio hori urtero edukitzea ez da erraza. Errealista naiz, eta onartua dut txapela irabazi nahi duenak urtero eman behar duela bere onena.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Lasai. Finaleko astean ikaragarririk gozatu nuen. Iritsi nintzelako, eta ez zelako erraza izan. Zenbat paseo eman ote ditut



Imanol Ansa eta Eugenio osaba, Zizurkilgo Zimenterioan. AIURRI

handia da. Urrizak egiten duena egiten du Imanolek, haren moldeak kopiatu, baina Urrizari aitortzen zaiona ez zaio aitortzen Imanoli. Ematen du bere garaipenak besteen ezina direla, Imanolen gaitasuna baino". Bere izaeraz, hauxe: "Ez diot ezer galdetzen, baina gauza asko kontatzen dizkit. Mutil umila da. Bero-beroa da, baina berotasun hori kanalizatzen ikasi du".

Eta zer ote dio Imanolek, osabaz? Enbidoa: "Bi urte daramatzagu dagoeneko elkarren ondoan bizitzen. Askatasuna ematen diogu elkarri. Bizi, eta bizitzen utzi. Afaldu edo bazkaltzen dugu sarri, baina bakoitza bere martxan ibiltzen da. Galtzen

Setien sagardotegiaren atarian musika entzun eta neure burua konbentzitzen, zure buruari mezu baikorrak ematen. Iaz dena biribilagoa izan zen, aurten oztopoz bete egon da bidea. Xabi anaiak galdetu zidan, finala irabazita, ea %100 eman ote nuen; %200 eman nuela erantzun nion. Javi Urriza berak watsapez bi-

dudanean ez dit latorik ematen, badaki behar badut joango naizela nirea esatera. Ez da gainean egoten den horietakoa. Oso ondo elkar ulertzen gara, eta oso ondo zaintzen nau". Eta hordagoa: "Urrizari finalerdia irabazita garaipena eskaini nion. Ligaskako lehen partida galdu nuenean, 9n utzi ninduen, bota zidan: 'sentitzen diat, Imanol, baina aurtengoa Urrizak irabaziko diala uste diat'. Finalerdian menderatu nuenean bueltan esan nion: 'hi, gogoratzen al haiz zer esan huan hilabete atzera?'. Berak ni xaxatzeko esan zidala esan zidan, pikatzeko, eta egia esan asko motibatu ninduen esan hark".

dalitako mezua ere asko estimatzen dut. Zorionak eman zizkidan, eta bueltan idatzi nion, bere jokoa kopiatuz lortu dudala nire bertsiorik onena, eta ikasten jarraituko dudala. Erakutsi behar zidan guztia ikasi dudala erantzun zidan. Pentsa nola geratu nintzen. Ez diot sinesten, gerra ematen jarraituko du ziur (barrez).



Beñat Fernandez "Pelontxu" andoaindarra, Jerezen. PELONTXU

Red Bull Rookies Cup lehiaketan ariko da Pelontxu andoaindarra

Albistea mugarrria izan daiteke pilotuaren ibilbidean, mundu mailako elitean aritzeko sarbidea baita

Erredakzioa ANDOAIN

Beñat Fernandez "Pelontxu" andoaindarrak berak eman zuen albistea, sare sozialen bitartez: "Pozten naiz 2025 denboraldian Red Bull Rookies Cup lehiaketan parte hartzeko hautatua izan naizelako! Eskerrik asko Red Bull taldeari aukera honengatik! Egunero laguntzen didazuen eta nigan konfiantza izaten jarraitzen duzuen guztiei bezala".

Albistea mugarrria izango da Pelontxuren ibilbidean, lehen mailako txapelketan aritzeko atea parez pare zabaltu zaizkiolako. MotoGP Rookies Cup -Red Bull MotoGP Rookies Cup eta Red Bull Rookies Cup izenez ere ezaguna- Europa osoan nazioarteko federazioak ofizialki onartutako lasterketa-sorta da. Urtero egiten da, Munduko Motoziklismo Txapelketarekin bat datorren lasterketa-egutegiarekin.

Lehen euskal pilotua, lorpen hori eskuratzen

Efren Vazquez Moto Academy-ko kide da Pelontxu. Akademiko arduradunak pozarren daude: "Oso pozik gaude gure pilotu Pelontxu aukeratu dutelako, kontuan harturik mundu osoko 8 pilotu bakarrik sartu direlako. Oso harro gaude hori lortu duen lehen euskal pilotua delako. Horrek, zalantzarik gabe, erreferente eta motibazio gehigarri bat emango die akademiako gainerako kideei".

Asteburu honetan, Alcañizeko MotorLanden lasterketa

Andoaindarrak asteburu honetan lasterketa du Aragoi aldean. Alcañizen ariko da FIM JuniorGP lasterketan. Talentu gazteei bideratutakoa da eta hori izan ohi da sarbidea MotoGP eta Superbikes txapelketetan parte hartu ahal izateko.



Euskalduna. AIURRI

Euskaldunaren bigarren garaipena, jarraian

Aurreko asteburuan 5-2 gailendu zen Ubitarten Hondarribiaren aurka jokaturako partidari

Erredakzioa ANDOAIN

Berdinketarekin ekin zioten ligari, eta hurrengo bi jardunaldietan sei puntu lortu dituzte. Gol gehien sartu dituen taldea izanik, sailkapenean lidergotzan da. Zazpi punturekin lehen postuetan dira Euskalduna, Orioko, Ostadar eta Mariño. Andoaindarrak asteburu honetan Billa-bona taldearen aurka ariko dira, Arratzain zelaian.

Urnieta, 1. Erregional mailan

4. multzoan jokatzeko ari dira eta jokaturako bi partidatan garaipen bana eskuratu dute. Azkena Astigarragako Mundaroren aurka (2-7).



AIURRI

Igo berrien artekoa, lehena

Leizaran Ernio Inmobiliaria taldeak Euskadiko Gizonezkoen Senior Txapelketari ekin dio eta lehen partidari Lau Bide Legazpi taldea izan zuen aurkari. Biak ala biak, igo berriak ziren. Lehen partidari legazpiarrak nagusitu ziren, markagailuan alde handia lortuz (19-30). Asteburu honetan jokaturako dute bigarren partidari. Gasteizen izango da Alkar taldearen aurka.



AIURRI

Asteburuan ekingo diote ligari

Leizaran Lanbroa taldeak asteburu honetan ekingo dio denboraldi berriari. Mutilei ez bezala, neskei ezaguna zaie liga, iaztik eskarmentua baitute Euskadiko Senior Emakumezkoen txapelketan. Zuazo taldearen aurka ariko dira asteburu honetan. Urriaren 20ko asteburuan ekingo dute debuta Allurralden, Urdaibai taldearen aurka.

Ligari ekin diote Oñatiren aurka berdinketa lortuz

Emakumezkoen gorengo erregionala aurreko astean abiatu zen. Aldaketa ugari dago Urnietako taldean

Erredakzioa URNIETA

Oñatin aritu ziren lehen partidari, Debagoienaren aurka. Oihana Arruek UKEko lehen gola sartu zuen, eta etxeko taldeak partida berdindu zuen. UKEk 1-2koa lortu zuen, baina bertan behera

geratu zen. Maitane Gonzalez entrenatzaileak debuta egin zuen UKEren aulkian, Maddi Lopezek lagunduta. UKEren staff teknikoan sartu diren kide berriak dira biak. Ines, Alaitz, Lucia eta Yera jokalariek ere debuta egin zuten.

Datorren asteburuan, Usurbilen jokaturako dute.

Emakumeen aldeko apustua

Urnietako Kirol Elkarteak, aurreko astean, emakumezkoen futbolaren aldeko apustu sendoa egin du. Honako hauek dira 24/25. denboraldian lehiari ariko diren taldeak: gorengoa, kadetea, infantila eta futbol-eskola.

UKEko nesken talde guztietan, gainera, emakumezko entrenatzaileak ariko dira denboraldi honetan.



Zutik Leire, Naroa, June, Ines, Maider, Nahia G, Aloña, Maitane, Maddi, Alaitz eta Arai. Behean, Ekiñe, Nerea, Nora, Oihana, Nahia H, Lucia, Yera eta Ana. UKE

ANDOAINEN, HILABETE HONETAN,

GAU BELTZA

URRIAK 31, OSTEGUNA

*Kalabazak hustu, kandelak piztu, beldurra eragin eta iluntasuna bizi!
Eguna egunekoentzat, gaua gauekoentzat...!*

Txokolate beroa, antzerkia, dantza, kalejira, talo-jatea,
zezen suzkoa... eta Larramendi Bazkunaren itsulapikoa!



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ERAKUSKETA

ANDOAIN **Ño!**

Maitane Gartzandia ilustratzaileak eta Miren Artetxe eta Eli Pagola egileek bertso saio batean gerta daitezkeen hamar eszena jaso dituzte.

Bastero Kulturgunea.

Azken eguna, urriak 17.

IKASTAROAK

ANDOAIN **Jabekuntza Eskola**

Eskaladako hastapena, Batukada feminista, arte garaikidea eta feminismoa, sendabelarrak...

Hainbat ikastaro abiatuko dira.

Infomazia:

Berdintasun Saila.

LEHIAKETA

ANDOAIN **Argazki-lehiaketa**

Andoaingo Udalaren 2025eko egutegia osatzeko lehiaketa. Gaia: "Merkataritza Andoainean".

Lanak aurkezteko epea:

Urriak 31.

ODOL-EMAILEAK

ANDOAIN **Hirzordu berria**

Odola emateko deialdi berria.

16:30-20:10 Anbulatorioa

Urriak 14, astelehena.



Kukai dantza konpainiako kideak. MENDI URRUZUNO

ANDOAIN **Dantza ikuskizuna**

"Txalaparta" Kukai konpainiaren ikuskizun berriena Andoainera iristear da. Oholtzan ariko dira, Jon Mayaren esanetara, honako dantzari hauek: Alain Maya, Arantza Iglesias, Ibon Huarte, Izar Aizpuru, Nerea Vesga, Izaro Urrestarazu eta Urko Mitxelena.

Urriak 11, ostirala. 19:30, Bastero.

MANIFESTAZIOA

DONOSTIA **Txirindulariak**

Dimisioa aurkeztu duen txirindulari federazioko lantaldeak deituta, Trafiko zuzendaritzatik jasotzen dituzten oztopoak salatzen.

11:00, Belodromoa.

Urriak 13, igandea.

KONTZERTUA

ANDOAIN **Aldapeko**

Doinu latinoak, jazz musika eta euskal musika uztartzen dira Aldapeko Basque Latin Jazz taldearen proposamenean.

19:30, Auditorioa.

Urriak 18, ostirala.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

La infiltrada

Urriak 12, lar.

19:30.

Urriak 13, ig.

19:30.

Irailak 14, astel.

17:00, 19:30.

10 vidas

Urriak 12 eta 13.

17:00.

Joker 2

Urriak 19, lar.


19:30.

Urriak 20, ig.

19:30.

Irailak 21, astel.

17:00, 19:30.



SINOPSIS

La infiltrada

Zuzendaria: Arantxa Echevarria. **Aktoreak:** Carolina Yuste, Luis Tosar, Víctor Clavijo, Nausicaa Bonnín, Iñigo Gastesi, Diego Anido, Pepe Ocio, Pedro Casablanc...

Herrialdea: Espainia (2024).

Hizkuntza: Gaztelania. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 118 m.

Benetako gertaera, Euskal Herrian

Hogei urte besterik ez zituenean, Logroñoko Kontzientzia Eragozpenerako Mugimenduko militante gisa aurkeztuz ezker abertzalean barneratzea lortu zuen, ETAko buruzagiekin etxebizitza batean bizi izan zen emakume

bakarra izanik. Infiltrazioan zehar, familiaren lokarri guztiak moztu behar izan zituen, guztia Donosti komandoa desegin ahal izateko. Filma Aranzazu Berradre Marinen benetako istorioan oinarrituta dago.

XOXOKAKO JAIK

OSTEGUNA 10

20:30 Zahagi-ardoa Xoxokako eskolan. Jatekoa bakoitzak berea eramanda. Edaria dohainik

22:30 Gau Sorpresa. Auzokideen antzezpena.

OSTIRALA 11

18:00 Herri Kirolak-Crossfit: Xoxoka vs. Asteasu.

20:30 Bertso afaria. Xoxokako plazan Aitor Mendiluze eta Iker Zubeldiarekin. Txartelak Adarra eta Guria tabernetan salgai daude.

01:00 Komerik erromeria.

02:30 Gaupasa DJ Infernurekin.

LARUNBATA 12

11:30 Hamaitetako eskolan.

11:30 Puzgarriak.

12:30 Aizkora erakustaldia. Unai Etxeberria "Osinalde" eta Malen Barrenetxea // Laiene Pikabea eta Igoien Pikabea

15:00 Mus azkarra Txapelketa Xoxokako eskolan (izena emateko epea 14:15-14:45).

16:00 Puzgarriak.

17:00 Andoni magoa: "DesOrekatua" ikuskizuna.

17:30 Toka eta karabina txapelketa eskola ondoan (izena emateko epea 16:45). Jarraian txokolateta, haur guztientzat.

20:30 Betizu jatea, Xoxokako plazan. Txartelak Adarra eta Guria tabernetan salgai.

00:30 Gaupasa Bide batez taldearen eskutik.

03:30 DJ Oier Mendizabal.

IGANDEA 13

12:00 Egape Dantza Taldearen erakustaldia.

13:00 Meza nagusia.

17:30 Herri kirol lehiaketa auzoko gazteen artean.

18:00 Sagardo-dastaketa.

20:30 Festen amaiera.

Jaien jarraipena Aiurri.eus webgunean.

Irri jaia, datorren urriaren 27an, Bastero Kulturgunean

Irria haur aldizkariaren 10. urteurreneko ospakizuna Andoainen egingo dute. Jaiak bi zati izango ditu. Lehen, "Irria dantzan" izeneko da. 10:30ean hasita, Udal musika eskolako ikasle gazteak eta beste zenbait eragile Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoekin batera igoko dira oholtzara. Ondoren, Plaza Morean eta Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian tailerrak eta jolasak izango dira eguerdiko 14:00ak arte.



AIURRI

Final-laurdenetan kantari ariko da Unai Gaztelumendi

Datorren urriaren 20an izango da Erreterian eta bertsokideen artean izango da Unai Gaztelumendi anaia

Erredakzioa URNIETA

Andoni Mujika Izagirre "Anatx"ek saio polita egin zuen Andoaingo Bastero Kulturgunean, eta eskura izan du Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-laurdenetarako sailkapena. Gutxi-gatik, baina, kanpoan geratu da. Añorgan sortu eta Urnietan bizi den Unai Gaztelumendi, berriz, Erreteriarako final-laurdenetan ariko da. Datorren urriaren 20an izango da, eta gauza bitxia gertatuko da: oholtza gainean, bertsokideen artean ariko da Beñat Gaztelumendi anaia.



Gaztelumendi anaia, Sanmielekako kantu-bazkarian. AIURRI

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Jesus Mari Gorostidi eta Anttoni Karrera
Urriaren 13an Andoaingo Gorostidi Burdindegiko Jesus Mari Gorostidik eta Anttoni Karrera urezko ezteiak ospatuko dituzte. Zorionak etxekoan partetik!



ANDOAIN
Eider Barrasa Bote
Zorionak Eider!!! Lagunekin eta etxekoekin bikain ospatu genuen. Muxu handia, etxekoak



ANDOAIN
Marivi Garcia Rodriguez
Urriaren 11n urteak beteko ditu... Etxeko guztien partez muxu erraldoia. Asko maite zaitugu!



ANDOAIN
Ainhoa Makazaga Ezkurra
Gure neskak urriaren 13an 31 urte beteko ditu. Diozun bezala: "Bizi, segundu bakoitza bizi". Muxuak, etxekoak.



ANDOAIN
Laida Arevalo Garcia
Urriaren 16an 6 urte beteko ditu etxeko txikienak. Bere ahizpa eta etxekoan partetik txokolatezko muxu erraldoi bat.



Brigadan ariko direnek prestakuntza jasoko dute. BETERRIBURUNTZA

Langabetuak kontratatzeko deialdia luzatu dute

Beterri-Buruntzan, enplegua sustatzeko deialdi bana luzatu dute Andoaingo eta Urnietako Udalek

Erredakzioa ANDOAIN

Lan deialdia Lanbideekin egin du.

Bost lanpostu, Andoainen

Lanpostu hauek beteko dira:

- 3 langile zerbitzu-brigadarako. Izena emateko epea urriaren 17ra arte dago zabalik.
- Iturgintzako 1. mailako ofizial bat. Izena emateko epea urriaren 17tik 29ra zabaldu dute.
- Administrari 1. Izena emateko epea urriaren 14tik 25era izango da.

Bi lanpostu, Urnietan

- Brigadako lan anitzetarako.

Prestakuntza, brigadan lanean hasi aurretik

Brigadan aritzeko hautatzen diuztenak bost hilabetez ariko dira lanean, lanaldi osoan. Lehenik eta behin, prestakuntza teorikoa eta praktikoa jasoko dute Lasarte-Orian, Gipuzkoako Eraikuntzako Lanbide Heziketako Eskolaren (EAGI) eskutik. Prestakuntza hori azaroaren 4an hasiko da.

Informazioa:

- Lanbide.
- Andoaingo Udala: 943 30 42 21. enplegua@andoain.eus.

Bertsoz bertso, bizikleta gainean

Igande honetan, "Bertsokleta" izeneko ekimena antolatatu du Leitzarar Bisitarien etxeak eta bertan ariko dira Aitor Mendiluze eta Eli Pagola bertsolariak. Bertsokletak, antolatzaileen hitzetan, bertsoak eta bizikleta lotuko ditu. Goikoplazatik hasiko da ekimena, goizeko 10:30ean eta Otieta parkerainoko ibilbidea osatuko du. Ibilbidea 8,5 kilometrokoa izango da guztira. Bidean, geldidunak egingo dituzte, hainbat bertsoaldi botatzeko. Udalak parte-hartzeko deia luzatu die herritarrei.

Street dance eskolak, Urnietan

Azaroko astelehenetan hasita, Errekaldeko 1 zenbakian izango dira, doan. Ez da beharrezkoa aurretik izena ematea. Ordutegiak honako hauek izango dira: 17:00-18:00 Street dance baby, 4-7 urte. 18:00-19:00 Street dance junior, 10-13 urte. 19:00-20:00 Street dance aurretik, + 18 urte.



Urnietako
udala

Andoaingo euskera, bihotzetik kalera!!

EGOITZA BERRIA EROSTEKO DIRU-BILKETA

Bete dezagun itsulapikoa!!

ANDOAINGO
EUSKERA,
BIHOTZETIK
KALERA

Egizu zure ekarpena Rural Kutxako
ES70 3008 0159 8152 7622 5926 zenbakiko
kontu korrontean sarrera eginez

50.000 € biltzea 2024ko helburua
Erantsi zure izena babesleen zerrendan!

2024-10-09ra bitartean
bidurikoa: 2.225,90 €



Egigun denon artean!!



Hurrengo hitzorduak:
2024-10-31:
2024-11-09:
2024-12-05:

Gau-beltza
Gastronomia eta artisautza azoka eta
TONBOLA handia
Andoaindarren jaia Basteron